

GIPUZKOA 2020

HAUSNARKETA ESTRATEGIKOKO PROZESUA

LURRALDEA. KALITATEKO GUNE BERRIAK.

XABIER UNZURRUNZAGA GOIKOETXEA

ESKEMA

1. GIPUZKOAKO LURRALDE EGITURA.

- 1.1. MORFOLOGIA FISIKOA ETA HIRI MORFOLOGIA.
- 1.2. GIPUZKOA EUSKADIKO GRABITATE ZENTROA

2. GIPUZKOAKO GAUR EGUNGO EGOERA.

- 2.1. LUR BALIABIDEAK.
- 2.2. NATURA INGURUNEA
- 2.3. HIRI EREDUA
- 2.4. LURRALDE ANTOLAKUNTZA
- 2.5. AZPIEGITURAK
- 2.6. EKIPAMENDU HANDIAK.

3. GIPUZKOA 2020. HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAK.

1. GIPUZKOAKO LURRALDE EGITURA.

1.1. MORFOLOGIA FISIKOA ETA HIRI MORFOLOGIA.

Gipuzkoako lurralde historikoak 2.000 km²-ko hedadura hartzen du, eta ipar-hego norabidean hainbat haran esturen inguruan egituratuta dago, gutxi gora-behera 40 kilometroko luzeran zehar. Ipar muturra Bizkaiko Itsasoaren aurrez aurre dago gutxi gora-behera, 50 kilometroko luzeran. Hego muturra, berriz, Elgea, Aizkorri eta Aralarko mendilerroetan kokatzen da, Araba eta Nafarroako lurralde historikoekin muga eginez.

Gipuzkoak mendebaldean Bizkaiko lurralde historikoa du mugakide eta ekialdean, berriz, Lapurdi, gutxi gora-behera 10 kilometro luzeran, eta Nafarroako Ipar-Ekialdeko muturra.

Gipuzkoako haranek osatzen dituzten natura korridoreak salbu, gainerako lurraldea gehienbat menditsua da eta berezko malda gogorrak ditu. Horrek, askotan, nekazaritza ustiapenerako erabilezin bihurtzen ditu. Beraz, Gipuzkoako geografian zehar, edertasun handiko paisaia naturala da nagusi.

Lurraldearen urbanizazio prozesua, denboran zehar, lerro formako haran hondoetan inplementatzen joan da, hainbat hiriren lerrokadura sortuz, gehienak Erdi Arokoak eta natura lurraldeko gune estrategikoetan kokatutakoak.

1.2. GIPUZKOA EUSKADIKO GRABITATE ZENTROA

Euskal Herriaren esparru geografikoan, Gipuzkoak kokapen estrategikoa du, Bizkaiko Itsasoko ertzaren eta Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Lapurdiko lurraldeen ondoan. Europako Batasunean mugak oraintsu desagertu izana gertakari historikoa izan da Gipuzkoak ipar-ekialdeko muga zuen politika eta administrazio hesia gainditzeko. Zentraltasun jarrera hori Gipuzkorako

hirigintza dinamizazioko faktore bat da, epe ertain eta luzera lurralde eta hiri garapenerako aukerei begira.

2. GIPUZKOA. GAUR EGUNGO EGOERA.

2.1. LUR BALIABIDEAK.

Gipuzkoako eskualde gehienetan, azken hamarkadetako hiri hedapen handia haranen hondoetako eta inguruko ertzetako malda leuneko mendi hegaletako lur lauak agortzea ekarri du. Malda guneetako hiri hazkundera lurralde eta hiriaren eraikuntzari inolako interesik ekartzen ez dioten ohiko ereduari jarraiki gertatzen ari da.

Datozen hamarkadetarako aurreikusten den hiri hedapenak, lehendik urbanizatutako lurretako hiri birmoldaketa eragiketen ondorioz, edota, hiri eta lurralde egiturarekiko harremanaren arabera alda daitezkeen maldadun mendi hegaletako lurretan egin beharko da. Bi kasuetan, kalitateko espazio berrien bilaketak hiri ereduak eta gaur egungo tipologia arkitektonikoak baino hiri, arkitektura eta kultura maila handiagokoak onartzea eskatuko du, baita lurra prestatzeko kostuaren gehikuntza handiak ere.

2.2. NATURA INGURUNEA

Gipuzkoako hiri askotan jasandako hiri garapen handia izanik ere, Industria Iraultzatik aurrera, eta, zehatzago esanda, XX. mendeko azken hamarkadetan, Gipuzkoako landa azaleraren zati handi batean, natura ingurunea baldintza egokietan gorde da. Gaur egun eta lurraldearen ezaugarri morfologikoak direla medio, azpiegitura obra handiak erasandako guneetan eragin kezkagarria sortzen ari dira.

Behar-beharrezkoa da babestu beharreko natura guneen katalogo zehatz bat egitea, natura ingurunea degrada dezaketen hirigintza jardunek izan dezaketten eraginaren aurrean.

Era berean, landa lurrari dagokionez, oro har, azterketa sakon bat egin behar da, baita eskualde desberdinetako hiri lur eta lur hiritargarriarekiko mugakide diren landa guneei dagokienez ere,

lurraren antolakuntza orokorreko irizpideak ezartzen saiatuz. Irizpide horiek lurraren landa erabileraren eta gure hirien inguruetan ahalbidetu beharko den hiri hedapen kultuaren arteko oreka bermatuko dute.

2.3. HIRI EREDUA

Gipuzkoako hiri lurralde egitura Deba, Urola, Oria, Urumea, Oiartzun eta Bidasoa bailaretan zehar estrategikoki kokatutako tamaina ertaineko hiri sare baten inguruan eratuta dago. Hiri gehienak Erdi Aroko sorreradun hiribilduen ereduari jarraiki sortu ziren, eta XX. mendearen erdialdera arte zentzuzko eran garatu dira, dinamika eta hiri hazkundeko prozesu desberdinak jarraituz. Horien artean, Industria Iraultzatik aurrera, XIX. mendearen amiaeran izandako hiri esku-hartzeak eredugarritzat har daitezke. 1960.etik aurrera Gipuzkoako industria hiri nagusien hiri hedapen handiak egoitza eta industria erako hiri inguruak ekarri zituen. Horiek hiri egituren desoreka larriak sortu zituzten, baita mota guztietako azpiegituren eta ekipamendu kolektiboen defizit handiak ere.

Azken hamarkadetan, sistema demokratikoaren eta Kontzertu Ekonomikoaren berreskurapena dela eta, gure hirietako hiri kalitate eta kulturaren ohiko mailak ere berreskuratzen ari dira. Gaur egun bestelako arazoak sortzen ari dira, hiri lurraldearen eskala aldaketa dela eta. Aldaketa horrek teknika mailan nahiz gizarte-ekonomia mailan eta politika mailan ere, udal eskala gainditzen duten lurralde eta hiri esku-hartze eredu berriak jarraitzea eskatzen du.

2.4. LURRALDE ANTOLAKUNTZA

Azken urteotan, Lurraldearen Antolakuntzarekin zerikusia duten dokumentuen mailaz mailako lanketa prozesu bat garatzen ari da, udalez gaindiko eskaletan. Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzaren Norabideetatik hasi eta eskualde desberdinetako Lurralde Plan Partzialen aurrerapenak eta hainbat Sektorekako Lurralde Plan ere aipa genitzake. Udal eskalako Planeamenduari

dagokionez, XIX. mendean zehar, Gipuzkoko hirietan tradizio eta eskarmentu handia bada ere, eskualde eta herrialde eskaletan, Lurraldearen Antolakuntza oraindik sustraitu gabeko eta Gipuzkoako lurralde historikoko eragile sozio-ekonomiko eta politikoei bere gain hartu gabeko irudi bat da. Gaur egungo egoerak eta etorkizunerako dauden itxaropenek udalez gaindiko eskalan Lurraldearen Antolakuntzari bereziki arreta jartzea aholkatzen du, baita orain arte erabilitako lurralde antolakuntza eta esku hartzeko forma eta egiturazko ereduak beste eredu desberdinak hartzea, bizimodu berrien eskaerari erantzuna emanez.

2.5. AZPIEGITURA SAREAK

Txosten hau egiteko erabili dugun ikuspuntu disziplinatutik, Lurraldearen Antolakuntzari bereziki eragiten dioten azpiegiturak aipatuko ditugu.

2.5.1. Bide Sarea.

Gipuzkoako hirigintza garapen handiarekin eta garraio pribatuaren agerpen eta hedapenarekin batera, gerra ondorengo lehenengo hamarkadetan zehar, errepideetan ekonomia baliabiderik apenas inbertitu ez zenez, maila desberdinetako bide azpiegiturretan, metatutako defizita dugu aurrez aurre.

Kontzertu Ekonomikoaren berreskurapenetik, autonomia eta foru erakundeetatik sektorean egindako ahalegina eginda ere, garbi dago Gipuzkoako bide sarea gaur egun defizitarioa dela, ekonomia dinamika indartsuko eta merkatuko lehiakortasunik handieneko testuinguruan kokatutako arlo batean, gaur egun

eskatzen diren mugikortasun eskakizunetarako. Egoera defizitario hori, gure lurraldetik igarotzen diren ardatz handiei dagokienez, nahiz bailaren arteko lotura sistemari edota Gipuzkoako lurralderako, maila handi batean, XVIII eta XIX. mendeetan itxuratutakoaren antzera jarraitzen duen hiriarteko bide sareari dagokienez ere antzematen da.

2.5.2. Trenbide sarea.

Euskal Herri osoan eta Gipuzkoako lurraldean 1850etik aurrera eraikitako trenbide sare aparta poliki-poliki zaharkitzen joan da, bai bere garaian trenbide zati oinarrizkoak ezabatuta, edota, maila desberdinetan mugikortasun eskaeraren ezaugarriei egokitzapen eta gaurkotze falta dela eta. Sare horrek barnealdean hirien sistema egituratzen zuen eta, era berean, Europako inguruneko hiri nagusietara ongi iristea ahalbidetzen zuen. Errepideen sektorean jasotako defizitak parekatzeko esku hartze jakin garrantzitsuak egiten ari badira ere, trenbidearen esparruan eta Gipuzkoako lurraldearen eremuan, zehazki, ez da antzematen maila desberdinetan, trenbide azpiegitura zentzuzko bat berreskuratzea sakon aztertzeko zantzurik, pertsona eta merkantzien mugikortasuna hobetzeko garraio alternatibo gisa.

2.5.3. Aireportuak.

Ondasun eta pertsonen mugikortasun eskaera gero eta handiagoak aire garraioko zerbitzuen hornidura arin eta modernoa eskatzen du. Gipuzkoak gaur egun ez die beren herritarrei arlo horretan gutxieneko hornidura maila eskaintzen, eta hori ekonomia eta merkataritza jarduerekin lotutako alderdietan, Europako inguruneko bestelako arloekin lehiatzeari begira, oztopo handia da.

Hondarribiko aireportuak eskaintzen duen zerbitzu maila ez da gaur egungo gutxieneko beharretara egokitzen eta etorkizunari begira, ez du hedapen eta funtsezko hobekuntza aukerarik.

Europako Batasunean sartu berri izanak eta, ondorioz, Donostia-Baiona Eurohiria abian jarri izanak Gipuzkoako aire garraioaren

arazoari hobekuntza itxaropen garbiak eskain ditzakeen populazio atalase maila berria sortzen dute.

2.5.4. Portu azpiegiturak.

Gipuzkoako ekialdeko muturrean, Pasaiako portu naturala, historikoki merkataritza, eta industria jardueraren funtsezko euskarria izanik, gaur egun, berregituraketa sakonari eusteko beharrean dago, bai ur xaflaren ahalmenari dagokionez, baita urbanizatutako inguruneko instalakuntza erantsiei dagokienez ere. Europako beste hainbat portuekiko lehian egin litekeen edozein planteamendu berrik hirigintza azterketa orokor bat eskatzen du, maila fisikoan zein egitura mailan, sakon esku hartzeari eutsiko diona, hain zuzen ere. Portua gaur egungo portu naturalaren gunetik kanpora zabaltzeko egin berri den proposamena zorrotz aztertu beharrekoa da; izan ere, Gipuzkoako lurraldearen antolakuntza orokorrerako etorkizuneko oinarrizko azpiegitura helburuak ezar baititzake. Era berean, Pasaiako portu jarduera Baionako portukoarekin egituratzeko aukera historikoa ere izan liteke, Donostia-Baiona Eurohiriaren esparruan.

2.6. EKIPAMENDU HANDIAK.

Txosten honen beste hainbat ataletan bezala, Ekipamenduen Sistema Orokorrak, udal mailan zein goi mailako gunetan ere, 1960an Gipuzkoako lurraldearen zati handi batean hasitako hiri garakeriaren etapatik jasotako defizitak arrastaka daramatza. Kontzertu Ekonomikoa berreskuratu zenetik, autonomia, foru eta udal administraziotik egindako inbertsio ahalegin handia hiri ehunduren eta udalez gaindiko hainbat esparruren berregite lanetan antzematen ari da. Hala ere, gaur egungoa bezalako une historiko batean, populazioaren maila ekonomikoa poliki-poliki

hobetzeko eta bizitza kalitatea hobetzeko eskaera gero eta handiagoa izanik, garbi dago garatutako beste hainbat herriren parean jartzeko, inbertsio berriak programatu eta inplementatu behar direla, lurrak eskuratu eta ondoren urbanizatzearen, eta, hala

balegokio, Gipuzkoako geografia ingurunean ekipamendu kolektibo handiak eraikitzearen.

Lurralde mailan ekipamendu handietako batean dagoen defizit egoerako adibide garbia EHUko Gipuzkoako Unibertsitate Kanpusa da. Izan ere, 20.000 inguruko ikasle kopurua izanik, 20 Ha baino gutxiagoko azalera du, European antzeko beste hainbat unibertsitate publiko eta pribatuetan dagoenaren %20, hain zuzen, eta Ameriketako Unibertsitate Kanpusen %10.

Kultura, kirola, aisia eta astiarekin lotutako jardueretarako ekipamendu handien eskaintza ere, poliki-poliki, eskaera koalitatiboa gero eta handiagoa izanik, sakon aztertu behar da, bai hirigintza eta paisaia arloetatik baita dagozkien ekonomia inbertsioen programazio eta kudeaketaren arloetatik ere.

Ekipamendu handien erabilera desberdinetarako gune berrien kokapena lurralde eta hiri antolakuntza prozesu orekatu baten barruan proposatu behar da, baita hiri eta hiriarteko egituratze espaziala eragiten duten hirigune berriak sortzeko aukera gisa ere.

GIPUZKOA 2020

HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAK

Txosten honen hausnarketa estrategikoak hartzen dituen 20 urteko denbora, epe ertainera aurreikuspen gisa hartu behar da. Aurreikuspen horiek paraleloan epe luzera bideratutako lurralde eta hiri eraldaketa prozesu batean egituratu eta tartekatu beharko lirateke.

20 urte atzera aztertutako lurralde eta hiri garapen prozesu batean, oro har ez da egitura eraldaketa handirik antzematen. Agian, hainbat une historiko jakinetan, duela mende bat gertatu zena, kasu, Gipuzkoan Industria Iraultzak ezarritako Lurralde Antolakuntzaren ildoak egokitzeak ekarri zuen erronka gure gain hartu ondoren, bai sortu zela lurraldearen hiritartze prozesuaren eraldaketa ikusgarria.

Gaur egun, mende berriaren hasieran, garatutako herrietan, zalantzarik gabe aldaketa atalase baten aurrean gaude, nolabait ere, Industria Iraultza iritsi zenean XIX. mendearen amaieran sortutakoarekin alderagarri, nahiz eta konnotazio desberdinak eduki. Arrazoirik nabarmenenak, alde batetik, iraultza digital eta telematikoaren agerpen ikusgarria, XX. mendeko azken hamarkadan poliki-poliki sortutakoa, eta, bestetik, garraio teknologia berrien agerpena, hirigintza eta ekonomia jardueren dinamizazio handia eragin dutena, hain zuzen.

Bi faktore horiek, gero eta lehiakortasun handiagoko esparru batean, mugikortasunaren erabateko eta pixkanakako aldaketa bat, ari dira sortzen, maila guztietan. Epe ertain eta luzerako

itxaropenek zalantzarik gabe garatutako gizarteetan eredu berriaren sendotze eta hedatze azkarra adierazten dute.

Poliki-poliki, gizartean jarrera kolektiboko eredu berriak sortzen ari dira, eta horiek bizimodu berriak ekarriko dituzte.

Gertakari sozio-ekonomiko horiek lurraldearen eta hirigintza planeamenduaren antolakuntzaren testuinguruan, maila guztietan, presioak sortzen ari dira. Eta badirudi prozesua datozen hamarka-

detan dinamizatuko dela. Horrek lurralde eta hiriaren eraikuntzan eragina izango du, ondorioz, eta, beraz, natura eta hiri paisaian ere bai.

Sortzen ari den espazio testuinguru berri horretan, Lurralde eta Hiri Planeamendurako erreferentzi unitate berriak agertzea eragiten duten lurralde eskala berriek hartzen dute protagonismoa. Errealitate berriak nolabait ere udal eskala gainditzen du, eta Euskal Herri osoa hartzen duten planeamenduko geografia eta espazio esparru berrietatik abiatzea beharrezkoa da, Los Angeles hiriak dituen antzeko neurritako “Euskal Hiria”, kasu, edota, Lurralde Historiko bakoitzaren eskalan, Erromako gune metropolitarrak duen antzeko azalerako “Gipuzkoa Hiria”, kasu.

Gaur egungo egoeratik Gipuzkoako Lurraldearen Antolakuntzaren ikuspegi orokorrak hiri eta lurraldearen ahalmenaren egiturazko diagnostiko zorrotza eskatzen du, mugak, ezak eta aukerak kontuan hartuta, etorkizunari begira eta XXI. mendearen hasieran aurrez aurre dugun erronka historikoari erantzun kultu bat bilatzeko asmoz. Diagnostikoak bereziki mugikortasun berriarekin lotutako alderdiak azpimarratu beharko ditu:

1. Trenbide Sarea.

Gaur egungo egoera sozio-ekonomikoa eta hirigintza egoeran trenbide azpiegituren programazio zuzenak funtsezko garrantzia du, lurraldearteko eta hiriarteko maila desberdinetan. Horrela, alde batetik, Europako gunearen beste ardatz estrategiko batzuetan kokatutako eskualde eta arlo metropolitarrakiko

baztertuta ez gelditzea bermatuko duten hainbat sare egituratzeko gai izango dira, eta, bestetik, Gipuzkoari barne eta kanpoko irisgarritasun egokia emateko gai, baita lurralde eta hiri egituraketarako euskarri izatekoa ere. Garbi dago Gipuzkoako lurraldeko gaur egungo trafiko eta garraioaren egoera kontuan hartuta, eta pertsona eta merkantzien mugikortasun eskaera berrien aurrean, trenbide egitura sakon berregituratu behar da, nazioarte mailan, Euskal Herri mailan eta Gipuzkoako barne mailan ere. Lehentasunezko esku hartzeak ondorengo hauexek izan litezke, alegia, Abiadura Handiko Trenaren eraikuntza bultzatzea Euskal herriko hiri nagusien arteko konektoretzat, eta eskaera berriei dagoen edota kendu berri den bide estuaren sarea hobetu eta egokitzearen azterketa egitea, metropoli eta hiriarteko ardatz konektoretzat ulerturik.

2.Bide Sarea.

Bide sareari dagokionez, epe labur eta ertainera, lehentasunezko ordenean Ekialde-Mendebalde norabidean Gipuzkoako bailarak lotzeko errepide berrien eraikuntza alternatiboak helburu nagusia izan beharko luke. Bide ardatz berri horiek, topografia baldintzak kontuan hartuta, tunelen bitartez eraiki beharko liratekeenak, Azkarate Mendate azpian, berreskuratu berri den Urola-Deba ardatzarekin egin den bezala, XVIII. mendetik aurrera eraikitako eta zaharkituta dauden mendi errepideak osatuko lituzkete – Deskarga, Bidania, Aduna, Elosua etab.- eta horiek paisaia intereseko parke-bide bihurtu litezke. Lehendik dagoen sareari edo Ipar-Hegoa norabidean eraikitzen edo eraikitzean dagoenari giltzaturik –Oriako autobia, Eibar-Gasteiz autobidea Deba bailaratik igarotzean, Urumeako Autobia-, bide sare alternatibo horren eraikuntzarekin, eta Urolako erlantz eta bide ardatzaren errepidearen hobekuntzarekin, epe ertain eta epe luzera, bide sare arinago eta azkarragoa berreskuratu eta gaurkotzea lortuko litzateke, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barneko ibilgailu zirkulazioaren egituraketa egokirako ezinbesteko euskarria, bestalde.

Gipuzkoako lurraldetik igarotzen diren bide ardatz nagusiek – Bilbo-Baiona Autobidea, Donostia-Iruña Autobia, Donostia-

Beasain Autobia bikoitze prozesuan dagoen Etxegarate mendateko Altsasurako luzapena eta guzti- gero eta zirkulazio handiagoa dute, eta, horrek epe labur eta luzera gainezka egiteko arazo serioak agertzea iragartzen du. Gipuzkoako Lurralde Antolakuntza koherentea egiteko, ondorio larriak arintzen ahaleginduko diren epe ertain eta luzerako alternatibak sakon aztertu behar dira.

3. Portu eta Aireportu azpiegitura handiak.

Kanpoaldean portu berri baten eraikuntzan oinarriturik dauden itzaropen berriekiko Pasaiako Portuaren egokitzapen aukerak ahalik eta zorrotzen aztertu beharko dira. Jaizkibel azpian dagozkien tunelen bitartez, inguruko trenbide, errepide eta aireportuko azpiegitura berriekin komunikatuta egongo da. Baionako Portuaren hurbiltasunak -Pasaiatik 40 kilometrora kokatua eta Donostia-Baiona Eurohiriaren gune metropolitarrak berberean sartua-, portu politika bateratsu bat ezartzea aholkatzen du.

4. Ekipamendu Handien Sistema Orokorrak.

Era berean, eta dinamika berrira eta eskaera koalitatibo eta koantitatibora egokiturik, kultura, unibertsitate, kirola, ospitale, merkataritza eta aisia ekipamendu handien beharrak ebaluatu eta programatuko dira. Parkeen eta paisaia babeseko guneen erreserba handiak kokatuko dira, eta, era berean, Natura Ingurunearen eta Kultura, Hiri eta Arkitektura Ondarearen Babeserako.

Proiektatu beharreko ekipamendu berriak Gipuzkoako lurralde eta hiri azpiegituraren gune estrategikoetan kokatu beharrekoak dira, hiri eskala eta mugikortasun baldintza berrietan oinarrituz eta natura eta hiri paisaian ongi integraturik, Gipuzkoa osoa eta eskualde eta metropoli gune ezberdinak artikulatu, egituratu eta dinamizatzeko gai izango diren gune berriak bilakatzeko asmoz.

Txosten honetan adierazi den eran, denboran zehar Gipuzkoako haranetan eta Donostia inguruko lurraldean eraturako eskualde naturalek etorkizunari begira epe ertain eta luzera hiri dimentsio berriaren subjektutzat protagonismoa hartuko dute. Donostia-Baiona mugaz gaindiko ardatzak ere Gipuzkoa Ipar Euskal Herriarekin egituratzeko aukera berria dakar, baita erdigune anitzeko Eurohiri baten oinarriak sortzeko ere.

Hiriaren eskala berria onartzea derrigorrezkoa da eta hiri bakoitzaren inguruan sortutako hiri lurraldea udal gaineko hiri egitura espazialaren parte diren landa zirrikituekiko lotura ulertzea eskatzen du. Erdigune izateko bokaziodun tarteko landa-hiri espazioak aurkitu behar dira, eta, behin urbanizatuz gero, maila handiko esku hartze arkitektonikoen euskarri izango dira, eskualde mailako ekipamendu handien erabilerarako, baita industria eta egoitza kokapen berrietarako. Kokapen horiek unean uneko eskaera koalitatiboak kontuan hartuta planifikatu beharko dira.

Gaur egungo eztabaida hiri ereduari dagokionez eta hiri inguruetan proiektatu eta eraiki beharreko egoitza gune berrien dentsitate eta izaerari dagokienez, egoitza dentsitate handiko hiri konpaktoa ala eraikuntza dentsitate baxuko hiri sakabanatua binomioaren inguruan planteatzen da. Ikusten denez, teknologia berriek eta hiri eta hiriarteko mugikortasun berriak sortutako bizimodu berriek dentsitate baxuko egoitza guneak eraikitzeke gero eta gizarte presio handiagoa sortuko dute. Dena den, dentsitate baxuko auzo tipologia berriak onartzeak dentsitate ertain eta altuetako beste hainbat gunerekiko hirigintza oreka bermatu beharko du, lehendik zeuden hiri guneekin eta landa paisaia ingurunearekin ongi egituraturako multzo bat osatuz eta

bere dimentsio berrian ulertutako hiriaren ideia garbia izanik. Bestalde, epe ertain eta luzera egin daitekeen hiri hedapeneko

edozein planteamenduk hiri eramangarriaren arazoa kontuan hartu beharko du.

Hiriaren eskalan eta izaera unibertsalarekin, lurraldean ongi identifika daitezkeen hiri ereduak eta bidezko hazkuntza erak sortu dituen denboran sendotutako hiri kultura bat dagoen bezala, Euskal Herri eta Gipuzkoako gaur egungo hirigintza egoeran ez dago udalez gaindiko eskaletan planeamendu eta kudeaketa eredurik, ezta hiriaren eskala berrian ulertutako forma eta egiturazko ideien kultura erreferentzizat, eskualde eskalan hiri eredurik ere. Gipuzkoari dagokionez, eskualde natural gehienetan lur laueko baliabiderik ezaren arazoak eta topografiaren baldintza gogorrek, derrigorrez proiektu mailako esku hartzeko parametro berriak hartzea dakar, hiriaren bidezko eraikuntza kultura bere dimentsio berrian ulerturik ahalbidetuko duen lurraldearen egiturazko irudi berria eraldaketa gunetzat irudikatzeko garaian.

Udalez gaindiko eskalan lurraldearen Antolakuntzaren disziplina arloan gauden egoeran, eta epe labur, ertain eta luzera dauden etorkizuneko itxaropenen aurrean, lurralde eskala handiko planeamendu esperientzi falta dela eta, garbi dago gure herrian egoera berriari zorrotasunez aurre egiteko gai diren disziplina anitzeko ekipo teknikoen falta. Herri anglosaxoietan hamarkadatan izan diren bezala, Euskal Herriko Unibertsitatean “*Regional Planning*”-eko Unibertsita Fakultate bat sortzea planifikatu beharko litzateke, ahalik eta azkarren, Euskal Herriaren eta Gipuzkoaren geografia gunean lurraldearen eta hiri berriaren eraikuntza eratzeko erronka liluragarria koherentziaz eta adimen eta kultura zorrotasunik handienaz eskain dezaketen teknikari taldeak prestatu ahal izateko.

Donostia, 2001eko iraila.

Xabier Unzurrunzaga Goikoetxea
Hirigintza eta Lurrealdearen Antolakuntzako katedraduna.